

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

2025eko Inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdia ebaztea

2024ko urriaren 31ko bilkuran, 2025eko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko ekitaldirako udal aurrekontuko 23.12.03.3381.48922 aurrekontu-partidaren kargura, laurogeita hamar mila euroko zenbatekoan, eta kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende geratu zen hori.

2024ko abenduaren 13an, Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki baten bidez, 2025eko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak aldatzea onartu zen, zehazki, 4.4 puntua (lehen paragrafoa), 7.6 puntua (III. eranskina) eta 9.2 puntua, erabaki horretan emandako idazkerarekin.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, balorazio-organoa bildu zen, 2025eko urtarrilaren 28an, eta balorazio-akta egin zuen, aipatutako deialdiaren oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera, bai eta dirulaguntzak emateko proposamena ere.

Honako hau dio 2025eko urtarrilaren 28ko aktak: "Soinudun karroza duen konpartsa bakoitzari 1.500,00 euroko zenbateko finkoa emango zaio, gehi zenbateko aldakor bat, zeina soinudun karrozei dagokien zenbatekoa kenduta geratzen den dirulaguntzaren gainerako zenbatekotik kalkulatu baita. Zenbateko hori konpartsakideen kopuru totalaren artean banatuko da (gehienez 244 pertsona konpartsa bakoitzeko).

7.003 pertsonak eman dute izena desfilean parte hartzeko.

Diruz lagundu daitezkeen pertsonak 6.386 dira guztira, 2025eko inauterietan parte hartzen duten konpartsei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 9.2. puntuan adierazitakoa kontuan hartuta."

Deialdi honen oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat etorriz, 2025eko urtarrilaren 28ko aktan dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena egin zen, Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari aurkeztu eta, hala bazegokion, onar zezan.

Entitate horiek egunean dituzte zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzari nahiz Vitoria-Gasteizko Udalarri ordaindu beharrekoak.

2025eko ekitaldiko udal aurrekontuko 23.12.03. 3381.48922 partidaren bada zuzkidura egoki eta nahikorik.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 31n egindako bileran hartutako erabakiaren arabera, "berariaz eskuordetzen zaio Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari deialdi hau ebazteko eskumena"

Eskumenak eskuordetzeko 2023ko uztailaren 7ko Dekretua, Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127.1g) artikulua ikusirik, Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariak honako hau

EBATZI DU

Lehen. 2025eko inauterietan parte hartuko duten konpartsei dirulaguntzak emateko deialdiaren ebazpena onestea, guztira laurogeita hamar mila euro (90.000,00 euro), 2025eko ekitaldirako udal aurrekontuko 23.12.03.3381.48922 partidaren kontura. Entitate hauei emango zaie dirulaguntza, zerrendan adierazitako kopuruetan:

KONPARTSA	IFK	PERTS ONA KOPUR UA, GUZTI RA	LAGUN D. PERTS. KOP.	7,28 € gehienez 244	TALDEA	GUZTIRA
SANSOMENDI-EHARIKO LAGUNEN ELKARTEA	G01144385	244	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
NCLIC SCHOOLGURASO ELKARTEA	G01575240	186	186	1.354,37 €	1.500,00 €	2.854,36 €
ERREKATXIKI-SANTA LUZIA AUZO ELKARTEA	G01125228	262	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
ZABALGANAKO KONPARTSA KULTUR ELKARTEA	G01571793	244	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
"VIRGEN DE GUADALUPE" EXTREMADURAKO ETXEA	G01046622	152	152	1.106,80 €	1.500,00 €	2.606,80 €
ZARANBIZ, ARTZAIN ONAREN PARROKIAKO KULTUR ELKARTEA	G01395581	244	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
"COMPARSA BAILA Y DISFRUTA" KULTUR ELKARTEA	G01538727	257	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
IRITSI GARA KULTUR ELKARTEA	G01539865	253	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
GASTEIZKO MARIANISTEN IKASTETXEKO GUILLERMO CHAMINADE GURASO ELKARTEA	G01298306	253	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
SALBURUKO ESKOLA PUBLIKOEN KONPARTSA - SALBUTERIAK	G56400641	243	243	1.769,42 €	1.500,00 €	3.269,42 €
SAGRADO CORAZÓN "CARMELITAS" IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA	G01025089	400	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
ARIZNABARRA KULTUR ELKARTEA	G72475437	305	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
SAN VIATOR/COFRADIA NSCC KULTUR ELKARTEA	G01488295	304	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
ABETXUKOKO INAUTERITAKO KONPARTSA	G01379007	290	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
URKIDE IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA	G01023035	337	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
VERA CRUZ IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA	G01018191	197	197	1.434,47 €	1.500,00 €	2.934,47 €
GASTEIZKO EUSKOBARÇA BARCELONAREN LAGUNARTEA	G01123009	210	210	1.529,13 €	1.500,00 €	3.029,13 €
NIÑO JESUS IKASTETXEKO INAUTERITAKO ELKARTEA	G01561794	201	201	1.463,59 €	1.500,00 €	2.963,59 €
EGIBIDE -NIEVES CANO IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA	G01044312	171	171	1.245,15 €	1.500,00 €	2.745,15 €
SAN JOSÉ DE CALASANZ GURASO ELKARTEA (ESCOLAPIOS)	G01030535	275	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
SENECA KULTUR ZENTRO ANDALUZIARRA	G01029545	193	193	1.405,34 €	1.500,00 €	2.905,34 €
CARPE DIEM ANTZERKI ETA KULTUR ELKARTEA	G01158302	268	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
OLAUTERI INAUTERIAK PRESTATZEKO GURASO ELKARTEA	G75456368	173	173	1.259,71 €	1.500,00 €	2.759,70 €
SANPRUINAUTERIAK SAN PRUDENCIO ELKARTEA	G19421676	238	238	1.733,01 €	1.500,00 €	3.233,00 €
SAGRADO CORAZÓN "CORAZONISTAS" IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA	G01267046	237	237	1.725,73 €	1.500,00 €	3.225,73 €
IKASBITURRIBERO KONPARTSA ELKARTEA	G13871074	261	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
ARANAKO AUZO ELKARTEA	G01137173	188	188	1.368,93 €	1.500,00 €	2.868,93 €
EUSKALI KULTUR ELKARTEA	G16479099	93	93	677,18 €	1.500,00 €	2.177,18 €
ANA MARIA RIVIER GURASO ELKARTEA (PRESENTACION DE MARÍA)	G01025170	324	244	1.776,70 €	1.500,00 €	3.276,70 €
GUZTIRA		7003	6386	46.500,00 €	43.500,00 €	90.000,00 €

Bigarrena. Aurreko zerrendan adierazten diren kopuruen ehuneko 80 ordaintzea. Gainerako ehuneko 20a jarduera gauzatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. Ebazpen hau argitaratzea, jakinarazpen-ondorioetarako, ALHAOean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta udalaren web-orrian, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45.1 b) artikularekin bat etorriz.

Laugarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsua Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua

aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 4an

Kultura eta hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA